

## 2018-ko MATEMATIKA EBALUAZIOAK CP

### 1. Ariketa :

#### Aginduak :

*“Ariketa honetan, erranen ditudan zenbakiak inguratuko dituzue.*

*Lerro bakoitzean, zenbaki bat baizik ez duzue inguratuko/zenbaki bat bakarrik inguruatuko duzue. Adibide bat elkarrekin eginen dugu.*

*Borobil beltzarekin hasten den lerroa begira ezazue. 1 zenbakia ingura ezazue. Has zaitetze.*

*Zenbakia hemen da.*

*Inguratu behar zen beraz.*

*Orain ulertu duzuela, hasiko gira.*

*Borobil xuriarekin hasten den lerroa begira ezazue. 3 zenbakia ingura ezazue.*

*Begira ezazue orain gezi beltzarekin hasten den lerroa. 5 zenbakia ingura ezazue.”*

*“Orrialdea itzul ezazue, 2 garren orrialdean zarete.”*

***“Ariketa bukatua da. Ondoko orrialdera joan zaitetze, 3 garren orrialdean zarete.”***

### 2. Ariketa:

*“Ariketa honetan, lerro bakoitzarentzat otarre bat bada, pilota batzuekin barnean.*

*Otarre barnean ikusten duzuen pilota kopuruari doakion zenbakia inguratu behar duzue.*

*Adibide bat elkarrekin eginen dugu. Borobil beltzaren gainean, zuen behatza/erhia pausa/ezar ezazue.*

*Borobil beltzaren ondoan lerro bat bada. Lerro horren gainean den otarrea begira ezaazue. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia ingura ezazue.*

*Erantzuna 3 da. 3 pilota badira otarrean.*

*Orain ulertu duzuela, elkarrekin segituko dugu.*

*Borobil xuria duen lerroa joan zaitetze. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia zerrendan ingura ezazue. Has zaitetze.*

*Gezi beltza duen lerroa joan zaitetze. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia, zerrendan ingura ezazue. Has zaitetze.*

*Orrialdea itzul ezazue, 4 garren orrialdean zarete. Karratu beltza duen lerroa joan zaitetze. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia, zerrendan ingura ezazue. Has zaitetze.*

*Karratu xuria duen lerroa joan zaitetze. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia zerrendan ingura ezazue. Has zaitetze.*

*Ondoko orrialdera joan zaitezte, 5 garren orrialdean zarete. Hodei beltza duen lerrora joan zaitezte. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia, zerrendan ingura ezazue. Has zaitezte.*

*Hodei xuria duen lerrora joan zaitezte. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia, zerrendan ingura ezazue. Has zaitezte.*

*Bihotz beltza duen lerrora joan zaitezte. Otarrean den pilota kopuruari, doakion zenbakia, zerrendan ingura ezazue. Has zaitezte.*

***Ariketa bukatua da. Orrialdea itzul ezazue, 6 garren orrialdean zarete.***

### **3. Ariketa:**

*“Orrialde honetan, bi zenbaki dituzten laukizuzenak badira. Lauki zuzen bakoitzean, zenbaki handiena marratu behar da.*

*Ariketa hasi aintzin, 4 adibide horiek, elkarrekin eginen ditugu.*

*Orrialde gain gainean begira ezazue. 1 eta 3 duen laukizuzenean, zergaitik 3 zenbakia marratua da?*

*Bai, 3, 1 baino handiago delako/baita. Azpian den laukizuzenean, 6 eta 3-ren artean, zein da handiena?*

*Bai, 6 da, beraz 6 marratu behar da marratxo bat eginez. Orain, beste bi laukizuzenak, bakarrik egin itzazue, ikus dezadan ongi ulertu duzuenez.*

*Orain ulertu duzuela, ariketa hasiko dugu. Abiadura ariketa bat da. Minuta bat baizik ez du irauten./ Minuta bat bakarrik irauten du. Segur aski ez duzue bukatua izanen baina ez da grabe/larria. Inportanteena, ahalik eta gehien egitea da.*

*Kronometroa piztuko dut. Anartean, denek estiloa altxatzen duzue, besoa gora.*

*Ondoko orrialdera joan zaitezte, 7 garren orrialdean zarete.*

*HASI erranen dudalarik, hasten ahalko zarete eta GELDI erranen dudalarik, gelditu beharko zarete, estiloa altxatu eta orrialdea itzuli. »*

***“Ariketa bukatua da. Orrialdea itzul ezazue, 8 garren orrialdean zarete.”***

#### 4. Ariketa:

*“Ariketa honetan, buruketak ebatziko dituzue. Ikur bakoitzarentzat, buruketa bat irakurriko dizuet galdera batekin. Galderari erantzuteko, kuadroaren azpian lerrokatuak diren zenbakien artean, emaitza inguratu behar duzue. Laguntzeko, kuadroa erabiltzen ahal duzue zenbakiak idazteko, marrazki bat egiteko...*

*Behar bada ez duzue aldi guziz lortuko, baina ez da grabe/larria. Ez baldin badakizue, ez duzue deus inguratzen eta itxoiten duzue ondoko buruketa, nik irakurtzea. Aldiz, pixka bat baldin badakizue, dakizuena ingurtatzen duzue, segur ez bazarete ere. Ez zaitetzela beldur, egin ezazue pentsatzen duzuen gisara. Inportantea da. Borobil beltzaren adibidea elkarrekin eginen dugu.*

*Buruketa ongi entzun ezazue. Oroitarazten dizuet kuadro hutsa erabiltzen ahal duzuela, zuen saiakerak idazteko edo marrazkiak egiteko. Kasu ez ahantz kuadroaren azpian zuen erantzuna inguratzea.*

*5 xakur eta 3 hezur badira.. Zenbat ezur gehitu behar dira xakur bakoitzak ezur bat ukan dezan ?*

*Buruketa honetan 2 zenbakia inguratu behar zen.*

*Orain ulertu duzuela, segituko dugu. Buruketa bakoitzarentzat, orrialde onari doakion ikurra erranen dizuet eta erantzuna inguratzeke denbora utziko dizuet.*

*9 garren orrialdera joan zaitetze, borobil xuriaren orrialdean zarete. Ongi entzun.*

*6 oilo badira. Bakoitzak arroltze 1 txitatu nahi du.*

*3 arroltze baizik ez dira/ bakarrik badira.*

*Zenbat arroltze gehitu behar da, oilo bakoitzak arroltze bat txitatzeke ?*

*Aire hartzea da, 8 ikaslek txirrindula nahi dute. Anderenoak, bi txirrindula baizik ez ditu artera/bakarrik atera ditu.*

*Zenbat txirrindula atera behar ditu oraino, ikasle bakoitzak txirrindula bat ukaiteko ?*

*7 haur kanpoan dira. Hotz handia egiten du. Denek burukoa/boneta nahi dute baina bat baizik ez da/ bakarrik bada. Zenbat buruko/bonet falta da?*

*Pierre-k, 5 pertsonarentzat mahaia ezarri nahi du.*

*9 azieta badira.*

*Zenbat azieta soberan/gehiegi bada ?*

*Mélanie-k 7 kanika bazituen. Aire hartzean kanikak galdu ditu. 3 gelditzen zaizkio.*

*Zenbat kanika galdu du ?*

*Jules-en zorroan, 10 margo badira.*

*4 margo ez dira gehiago ibiltzen.*

*Zenbat margo ibiltzen dira oraino?*

***Ariketa bukatua da. Orrialdea itzul ezazue, 12 garren orrialdean zarete.***

### **5. Ariketa:**

*Orrialde honetan, zenbakiak erranen dizkizuet, laukitxoetan idatzi beharko dira. Zenbakia bi aldiz erranen dut, ez gehiago.*

*Ez badakizue, ez da grabe/larria, gurutze bat egin ezazue zenbakia idatzi behar zenuten laukitxoan eta itxoin ezazue ondoko zenbakia nik erratea. Aldiz, pixka bat baldin badakizue, dakizuena idatz ezazue, segur ez bazarete ere. Ez zaitetzela beldur, idatz ezazue pentsatzen duzuen. Inportantea da.*

*Ez galtzeko, laukitxoaren ondoan den ikurra erabil ezazue.*

*Ongi entzun.*

*Orrialdearen gainean, borobil beltz bat duen laukitxo bat bada. Hor duzue lehen zenbakia idatzi behar.*

*Zuen behatza/erhia borobil beltzaren gainean ezar ezazue.*

*Laukitxo horretan, 3 zenbakia idatz ezazue.*

*Ondoko laukitxoan, borobil xuriarenean, 5 zenbakia idatz ezazue.*

***Zenbaki diktaketa bukatua da. Ondoko orrialdera joan zaitetzte, 13 garren orrialdean zarete.***

### **6. Ariketa:**

*Orain, zenbaki lerroaren/lerro numerikoaren ariketa eginen dugu.*

*Orrialde honetan eta ondokoetan, zenbaki bat beste biren artean atzematen saiatuko zarete. Elkarrekin adibide bat eginen dugu.*

*Lerro hau begira ezazue, 0 tik 10 era doa/joaten da. 0 tik 10 era doazen/joaten diren zenbaki guziak lerroan dira.*

*Lerroaren gainean marratxo bat erakutsiko dizuet eta nahi nuke erran dezazuen zer zenbaki kokatzen den leku honetan.*

*Adibidez, marratxo hau erakusten badizuet, zer zenbaki kokatzen da hemen?*

*0 da, bai!*

*Oraingoan, marratxo hau erakusten badizuet, zer zenbaki kokatzen da hemen?*

*10 da, bai!*

*Zuen kaierean den adibidea hartuko dugu oraingoan.*

*Zuen kaierean ere bai, 0 tik 10 era doazen lerroak ikusiko dituzue. Lerro bakoitzean, marratxo bat etiketa huts batekin agertzen da.*

*Lerro bakoitzaren azpian, erantzunak proposatuak dira. Etiketarekin den marratxoak erakusten duen zenbaki egokia, inguratu behar duzue.*

*Orrialde gainean den lerroa begira ezazue, borobil beltza duena., joan zaitezte, etiketarekin den marratxoak erakusten duen zenbaki egokia, inguratu behar duzue.*

*Azpian, proposatuak diren erantzunak begira itzazue, zer zenbaki ezartzen ahal dugu marratxoak erakusten duen etiketa hutsean? 1 da, bai. 1 erantzuna inguratuko dugu beraz.*

*Xerkatu behar den zenbakia 0 eta 10-en artean da beti baina ariketa bakoitzean bere lekua aldatzen da.*

*Proposatuak diren 6 zenbakien artean, bat baizik ez duzue inguratu behar/ bakarrik inguratu behar duzue.*

*Orain denek ulertu duzuela, ariketa honetan bakarrik lan egingen duzue.*

*Ez ahantz orrialdeak itzultzea, lau orrialde baitira. Has zaitezte.*

*BIBA ZUEK, ongi lanean aritu zarete. Kaiarak hesten ahal dituzue.*